

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Bazkideak enpresaren sortzaileak izango gara, hau da: Ane Aranburu, Ane Garaialde, Hidaya Jahjah eta June Izagirre. Bakoitzak gaitasun ezberdinak ditugu baina lauror indarguneak batuz talde lan polita sortzen dugu. Aipatu beharrekoa da, gaitasunak izan arren gure ahuleziak ere baditugula eta ondorioz elkar lagundu behar gara.



Ane Aranburu → bezeroekin harreman zuzena izateko eta salmentak kudeatzeko lana eramango du.

Ane Garaialde → produktuaren diseinua eta sormen bisuala bere gain hartuko ditu.

June Izagirre → materialak antolatuko ditu; hornitzaileekin harremanak bere esku egongo dira.

Hidaya Jahjah → marka ezagutarazi eta bezero berriak erakartzeko estrategiak sortuko ditu.

Hornitzaileak:

- Imana fabrikatzaileak
- Plastiko gorren fabrikatzaileak
- Ontzi eta packaging hornitzaileak

3 puntu hauek dira guk gure produktua sortzeko behar izango ditugun lehengaiak. Lehengai hauek hornitzaileei erosiko dizkiegu eta

ondoren esku-lan prozesu baten bitartez lehengai hauek azken produktu bilakatuko ditugu. Hau honela egitea erabaki dugu beti aukera merkeena nahi dugulako. Hau da, aztertu dugu hornitzaileei lehengaiak erostea eta ondoren guk sortzea azken produktua aukera merkeena dela, gainera esku-lana egongo denez balio handiago izango du produktuak.

Hornitzaile hauek funtsezkoak izango dira gure proiektua aurrera eramateko, haiei esker lortzen ditugulako produktua sortzeko behar diren oinarritzko materialak. Lehengai horiek gabe, ez legoke ekoizpenik, ez eta azken produkturik ere.